**INGURUMENEKO TOKIKO FOROAREN BILERAREN AKTA**
**(22.03.03)**

INGURUMENEKO HIRI ZERBITZU ETA INGURUMEN KALITATE ZERBITZUA ZINEGOTZI ARDURADUNA:
JOSEBA ARREGI jn.

HIRIGINTZA, OBRA ETA ZERBITZU ARLOKO ZINEGOTZIA:
JANIRE OCIO and.

INGURUMENEKO TEKNIKARIA:
JOSU ATEKA jn.

FOROKO IDAZKARIA:
ARANTZA CABEZA and.

ZERBITZU TEKNIKOEN SAILA-ZERBITZU AZPIEGITURA
KEPA SACRISTÁN jn.

AHOLKULARIA:
EUGENIA ATIN and.

BERTARATUTAKOAK:

TXARO ARCENIEGA and. (Basozaleakeko ordezkaria)
AMAIA LAUZIRIKA and. (Getxo Enpresako batzordekidea)
XABIER BUENETXEA jn. (Ingurumen gaietan ospe handia duen pertsona),
JAVIER LOIDI jn. (Unibertsitate munduko pertsona)
KOLDO NABASKUES jn. (Euskal Kontsumitzaileen Alkarteko ordezkaria)
EMILIO MARTINEZ jn. (Julio Caro Baroja Eskolako Agenda 21)
IÑIGO AZKARATE jn. (Gazteen ordezkaria)

Honako hauek ezin etorria azaldu dute:
JUANJO QUIÑONES jn. (Urtealaiakeko ordezkaria), ARITZ PEREZ jn (Getxo Atletismoko presidentea), ANDEKA ZUBIAUR jn. (Aixerrota Eskolako Agenda 21), KARMELE URQUIJO and. (Gizatiarreko ordezkaria), CELIA MARAÑON and. (Ekologistak Martxan) eta MIGUEL ANGEL ROGGERO jn. (Itxartu Taldea).

Getxon, 2022ko martxoaren 3an, arratsaldeko zazpietan bildu da Getxoko Ingurumeneko Tokiko Foroa, eta arestian aipatutako kapitularrek parte hartu dute.

**GAI ZERRENDA**

Bileraren hasieran Eugenia Atinek adierazi du Foroko zenbait kidek ezin etorri izana adierazi dutela.

**1.- Kide berriaren aurkezpena**

**ACTA DE LA REUNIÓN DEL FORO LOCAL DE MEDIO AMBIENTE**
**(03.03.22)**

CONCEJAL DE SERVICIOS URBANOS AMBIENTALES Y CALIDAD AMBIENTAL:
D. JOSEBA ARREGI

CONCEJALA DEL ÁREA DE INFRAESTRUCTURAS, OBRAS Y SERVICIOS:
Dª JANIRE OCIO

TECNICO DE MEDIO AMBIENTE:
D. JOSU ATEKA

SECRETARIA DEL FORO:
Dª ARANTZA CABEZA

ÁREA DE SERVICIOS TÉCNICOS-INFRAESTRUCTURA SERVICIOS.
D. KEPA SACRISTÁN

CONSULTORA:
Dª EUGENIA ATIN

ASISTENTES:

Dª TXARO ARCENIEGA (Representante de Basozaleak)
Dª AMAIA LAUZIRIKA (Vocal de Getxo Enpresa)
D. XABIER BUENETXEA (Persona de reconocido prestigio en Medio Ambiente)
D. JAVIER LOIDI (Persona del mundo de la universidad)
D. KOLDO NABASKUES (Representante de la Asociación de Personas Consumidoras y Usuarias Vasca),
D. EMILIO MARTINEZ (Agenda Escolar 21 Julio Caro Baroja)
D. IÑIGO AZKARATE (Representante de la Juventud)

Excusan su no asistencia:
D. JUANJO QUIÑONES (Representante de Urtealaiak), D. ARITZ PEREZ (Presidente de Getxo Atletismo), D. ANDEKA ZUBIAUR (Agenda Escolar 21 Aixerrota), Dª KARMELE URQUIJO (Representante de Gizatiar), Dª CELIA MARAÑON (Ekologistak Martxan) y D. MIGUEL ANGEL ROGGERO (Itxartu Taldea).

En Getxo, a 3 de marzo de 2022 se reunió a las diecinueve horas de este día el Foro Local de Medio Ambiente de Getxo, con asistencia de los capitulares reseñados.

**ORDEN DEL DÍA**

Al comienzo de la reunión, Eugenia Atin excusa la no asistencia de algunos miembros del Foro anteriormente citados.

**1.- Presentación nuevo integrante**

Ongietorria ematen zaio Forora heldu den ordezkari berriari, Trinitarias ikastetxeko Iñigo Azkarateri. Berak Foroan gazteen interesak ordezkatuko ditu. Aurkezpen-erronda bat egingo da eta ordezkari bakoitzak bere izena eta ordezkatzen duen elkartea edo erakundea adieraziko ditu.

Se da la bienvenida a un nuevo representante al Foro, Iñigo Azkarate, del centro de enseñanza Trinitarias, que representará los intereses de la juventud en este Foro, realizando una ronda de presentación donde cada representante indica su nombre y la asociación o entidad a la que representa.

**2.-2021eko maiatxaren 25ean egin ziren Ingurumeneko Toki Foroko bilkurei dagozkien aktak onestea.**

Aho batez onartu da.

**2.- Aprobación del acta correspondiente a la reunión del Foro Local de Medio Ambiente, celebrada el 25 de mayo de 2021.**

Se aprueba el acta por unanimidad.

**3.- 2030 Agendako (2020-2023ko) Ekintza Planaren gauzapenaren jarraipena.**

Eugenia Atinek azaldu du Planaren betearazpenaren azken ebaluazioa egin dela udaleko teknikariekin izandako elkarrizketen bidez. Elkarrizketa horietan, ekintza bakoitzaren betearazpen-egoerari buruzko balorazio kualitatiboa egin da.

Tokiko Agenda 2030en Ekintza Planak 66 ekintza ditu. Udaleko teknikariek azaldutakoaren arabera, horietatik 44 ekintza aurreratuta daude, 17 ekintza hasi egin dira eta 5 ekintza hasteke daude. Azpimarratu behar da ekintza asko jarraituak direla eta, beraz, ez direla osatutzat joko 2020-2023 epealdia amaitu arte.

Horrela, Udalsarearen formularen arabera, Tokiko Agenda 2030en Planaren ezarpen-maila % 39,77koa izan da aldiaren lehen erdi honetarako.

Jarraian, ekintza guztien errepasoa egin da eta aldi honetako lorpen nagusiak azaldu dira. Eztabaida sorteo duten alderdiak jaso dira jarraian. Zehaztasun gehiago jaso nahi izanez gero, erantsitako ebaluazio txostena aztertzea gomendatzen da.

Udal kudeaketako **1. ildo estrategiko**ari heldu diote lehenengo eta behin. Udal-langileek baliabideen erabilera murrizteari buruzko 1.1.3 ekintzari dagokionez, Javier Loidik jakin nahi du helburua paperik gabeko administrazioa den. Teknikariek erantzun dute zaila dela paperaren erabilera behin betiko kentzea, eten digitala hor dagoelako eta, beraz, dena online egiteak administraziorako sarbiderik gabe utziko lituzkeelako pertsona asko. Paperaren erabilera murriztu da, baina derrigorrezkoa da oraindik ere egotea.

Informazioaren eta parte-hartzearen **2. ildo estrategikoa**n, hainbat galdera mahaigaineratu dira. Web orri berriari dagokionez (2.1.1. ekintza), Javier Loidik esan du espero duela webgune berrian telefono zenbakiak eskuragarri egoten jarraitzea. Atari handiek joera dute telefono bidezko harremanetarako informazioa ezabatzeko, eta inprimakiekin ordezkatzen dute informazio hori. Haren iritziz, telefonoa beti da beharrezkoa. Puntu horretan, Emilio Martínezek adierazi du webgunean ageri den Mesedeetako kaleko HABko telefonoa

**3.- Seguimiento de la ejecución del Plan de acción de Agenda 2030 (2020-2023)**

Eugenia Atin explica cómo se ha realizado la evaluación final de la ejecución del Plan a través de entrevistas con los técnicos y técnicas del Ayuntamiento. Durante las entrevistas se ha realizado una valoración cualitativa del estado de ejecución de cada una de las acciones.

El Plan de Acción de Agenda Local 2030 se compone de 66 acciones de las cuales, según los técnicos y técnicas del Ayuntamiento, 44 acciones se encuentran avanzadas, 17 se han iniciado y 5 acciones están pendientes de inicio. Cabe destacar que muchas de las acciones tienen carácter continuo y por tanto no se van a considerar completadas hasta que no finalice el periodo considerado 2020-2023.

Así, según fórmula de Udalsarea, el Grado de implantación del Plan de Agenda Local 2030 para esta primera mitad del periodo ha sido del 39,77 %.

A continuación se hace un repaso de todas las acciones explicando los principales logros del periodo. Se señalan a continuación los aspectos que suscitaron el debate y se aconseja analizar el informe de evaluación adjunto para un mayor detalle.

Se comienza por la **línea estratégica 1** de gestión municipal. Con relación a la acción 1.1.3 sobre la reducción del uso de recursos por parte del personal municipal, Javier Loidi desea saber si el objetivo es una administración sin papeles. Los técnicos responden que es complicado eliminar el uso del papel definitivamente ya que la brecha digital existe, y por tanto ir a todo online dejaría a muchas personas sin acceso a la administración. Se ha minimizado el uso del papel pero es obligatorio que siga existiendo.

En la **línea estratégica 2** de información y participación, se planean varias preguntas. Con relación a la nueva página web (acción 2.1.1), Javier Loidi comenta que espera que, en la nueva web, el número de teléfono siga siendo accesible. Existe tendencia por parte de los grandes portales a eliminar la información de contacto telefónico, sustituyéndola por formularios, y en su opinión, el teléfono siempre es necesario. En este punto, Emilio Martínez señala que el teléfono de la OAC de la oficina de la calle de las Mercedes no es correcto en la web.

ez dela zuzena. Deitzen duzunean, ez dela existitzen esaten dute. Teknikariek oharra jaso dute abisua emateko. Kepa Sacristanek Zeugaz plataformaren (2.2.1 ekintza) garrantzia azpimarratu du, parte-hartze prozesuetan berehala erantzuten delako eta denbora-tarteak hobetzen direlako.

Ibilbide ekologikoen 2.3.2 ekintzari dagokionez, Javier Loidik galdetu du ea Getxotik irtetea pentsatu den, ibilbideetan hain urbanoak ez diren inguruneak eta landa-inguruneak sartzeko. Josu Atekak erantzun du ibilbide ekologikoak 1970etik daudela martxan, eta urtero egokitzen direla. Zorionez, Getxon Andra Mari ingurua —nahiko landatarra dena— dugu, bai eta kostaldea eta Boluako hezegunearen ingurua ere. Ikasturte gorenekoek meatzaldea bisitatzen dute.

2.3.3 ekintzaren (Ingurumen Gelari eta bertako jarduerei jarraipena ematea) puntuan, Iñigo Azkaratek bere poza adierazi nahi du Gela horrekiko eta egiten duten lanarekiko. Trinitarioetan oso pozik daude Ortzadar enpresaren zerbitzuarekin; eragozpen bakarra da Lehen Hezkuntzako ikasleekin ezin dela oinez joan eta autobus bat kontratatzeak 500 euro inguru balio duela. Iñigo Azkaratek adierazi du pandemia garaian Gelako irakasleak eskolara etortzen zirela eta oso ondo aritu zirela. Eskertzekoa litzateke noizean behin ildo horretan jarraitzea, Ingurumen Gela gauza gehiago izan dadin (ez bakarrik Gela). Teknikariek erantzun dute hain zuzen ere horretan ari direla lanean. Ibilbideak egiten dira hiriguneetan eta Portu Zaharrean barrena. Baina egia da gehiago landu behar dela hori.

Jarraian, hirigintza iraunkorrari buruzko **3. ildo estrategikoa** aztertu da.

Etxebizitzari (3.2.1 ekintza) dagokionez, Iñigo Azkaratek Sarrikobason eraikiko diren etxebizitzei buruz galdetu du: zehazki non egingo diren. Kepa Sacristanek azaldu du Maidagango etxebizitzak direla, parkearen ondokoak. Iñigo Azkaratek, gazteen ordezkari gisa, azaldu du gazteen artean arazo handia dagoela, ezinezkoa baita Getxon etxebizitza bat eskuratzea. Alokairurako gizarte-laguntzak urte batzuk geroago ematen dira, eta, beraz, ez dute balio hasiera batean emantzipatu ahal izateko. Garrantzitsua litzateke laguntzak lehenago ematea, eta ez geroago.

3.2.5 ekintzan (etxebizitzen birgaitzea eta hiri-berroneratzea bultzatzea), Javier Loidik jendea eguzki-plakak jartzera animatzen saiatzea proposatu du, autokudeatzaile izateko. Ildo beretik, Koldo Nabaskuesek galdetu du ea Udalak ezingo lukeen eragile izan komunitate energetikoak sortzeko. Kepa Sacristanek erantzun du arau-esparrua argitu behar dela, esparru juridikoa konplexua baita. Koldo Nabaskuesen iritziz, EEEk zalantzak argitu ditzake. Ingurumeneko teknikariak EEErekin harremanetan jarriko dira.

Kepa Sacristanek zehaztapen batzuk egin ditu 3.3.1 eta 3.3.2 ekintzetan, lorezaintzari eta berdeguneei buruzkoetan. Beti aukeratzen da hazi autoktonoa; eta lurzoru pobrerako espezie egokiak hautatzen dira, gure kasuan bezala, gazitasun handiko aurkako ingurune bat delako. Espezie batzuk ez dira errotzen. Garai ekologikoak ere kontuan hartu behar dira. Jendeak ez du zuhaitzak hazi arte itxaron nahi.

Cuando llamas, dicen que no existe. Los técnicos toman nota para dar aviso. Kepa Sacristan señala la importancia de la plataforma Zeugaz (acción 2.2.1) por la inmediatez de respuesta en los procesos participativos y la mejora de los tiempos.

Con relación a la acción 2.3.2 de itinerarios ecológicos, Javier Loidi pregunta a ver si se ha pensado salir de Getxo para incluir en los itinerarios entornos menos urbanos y más rurales. Josu Ateka responde que los itinerarios ecológicos están en marcha desde 1970 y que cada año se van adaptando. Tenemos la suerte de que en Getxo contamos con la zona de Andra Mari que es bastante rural, y la zona costera y la zona del humedal de Bolue. El curso superior visita la zona minera.

En el punto de la acción 2.3.3. Dar continuidad al Aula Medioambiental y sus actividades, Iñigo Azkarate quiere mostrar su satisfacción con el Aula y la labor que hacen. En Trinitarias están muy contentos con el servicio de la empresa Ortzadar y la única pega es que con el alumnado de primaria no se puede ir andando y contratar un autobús cuesta alrededor de 500 euros. Iñigo Azkarate señala que durante la pandemia, el profesorado del Aula venía a clase y estuvo muy bien. Sería de agradecer que de vez en cuando se continuara en esta línea para que el Aula Ambiental sea más cosas, no solo el Aula. Los técnicos responden que efectivamente se está trabajando en ello. Se hacen itinerarios por los centros urbanos y por el Puerto Viejo. Pero sí que hay que trabajarlo más.

Seguidamente, se analiza la **línea estratégica 3** relativa al urbanismo sostenible.

Con relación a la vivienda (acción 3.2.1), Iñigo Azkarate pregunta por las viviendas que se van a construir en Sarrikobaso, que dónde es exactamente. Kepa Sacristan explica que son las viviendas en Maidagan, al lado del parque. Iñigo Azkarate, en representación de la juventud, explica que hay un problemón entre los jóvenes puesto que es imposible acceder a una vivienda en Getxo. Las ayudas sociales para el alquiler se dan años después y por lo tanto no sirven para poder emanciparte en un primer momento. Sería importante que las ayudas se dieran antes y no después.

En la acción 3.2.5. Impulsar la rehabilitación de viviendas y regeneración urbana, Javier Loidi propone tratar de animar a la gente a poner placas solares para ser autogeneradores. En el mismo sentido, Koldo Nabaskues pregunta a ver si el Ayuntamiento no podría ser tractor para la generación de comunidades energéticas. Kepa Sacristan responde que hay que despejar el marco normativo ya que el marco jurídico es complejo. Koldo Nabaskues opina que el Eve puede despejar dudas. Los técnicos de medio ambiente contactarán con el Eve.

Kepa Sacristan hace unas puntualizaciones en las acciones 3.3.1 y 3.3.2 relativas a la jardinería y las zonas verdes. Siempre se selecciona semilla autóctona y se seleccionan especies apropiadas para suelo pobre, como es el caso nuestro porque es un entorno hostil con alta salinidad. Hay especies que no arraigan. También hay que tener en cuenta los tiempos ecológicos. La gente no quiere esperar a que crezcan los árboles.

Amaia Lauzirikak Zugatzarte inguruari buruz galdetu du: zergatik ez den belarra ateratzen eta urteko sasoi guztietan soilgune asko dauden obra batzuk egin zirenetik. Josu Atekak adierazi du kontuan izan behar dela eremu itzaltsua dela, eta zuhaitz hostotsu asko eta sustrai askoko pinu handiak daudela bertan. Horrez gain, jendeak ibiltzen jarraitzen du eta ur-ihesak daude eremu pribatu batean. Javier Loidik esan du soropilaren ordez beste ereite mota batzuk badaudela. Kepa Sacristanek erantzun du kontuan hartzen direla eguzkialdiaren arabera funtziona dezaketen espezieak. Adibidez, Areetako plaza berrirako dagoeneko hautatu da espezie egokia.

Amaia Lauzirika pregunta por la zona de Zugatzarte, la razón por la que no sale la hierba y hay muchas calvas en todas las épocas del año desde que se hicieron unas obras. Josu Ateka señala que hay que tener en cuenta que es una zona sombría, con muchos árboles frondosos, grandes pinos con muchas raíces. A parte la gente sigue transitando y hay unas fugas de agua en una zona privada. Javier Loidi comenta que hay otro tipo de siembras a parte de césped. Kepa Sacristan responde que efectivamente se tienen en cuenta las especies que pueden funcionar según el soleamiento. Por ejemplo para la nueva plaza de Areeta ya se ha seleccionado la especie apropiada.

Javier Loidik, 3.3.3 ekintzaren (Parkeetan erakargarriak sortzea, udalerriko balio naturalak nabarmentzeko) testuinguruan, horma eta pareta batzuei balioa ematea proposatzen du, benetako altxorrak baitira biodibertsitatearentzat. Kepa Sacristan bat dator Javier Loidirekin; hain zuzen ere, Portu Zaharreko hormetako espezieen inbentarioa egin zen. Hala ere, pedagogia egin behar da; izan ere, Janire Ociok dioen bezala, hormak garbitu gabe uztea utzikeriarekin lotzen da, eta gero herritarrek deitu eta kritikatu egiten dute. Horma horiei balioa emateko kartelak jar litezke.

Javier Loidi, en el contexto de la acción 3.3.3. Crear atractivos en los parques para resaltar los valores naturales del municipio, propone poner en valor algunos muros y tapias ya que son auténticas joyas para la biodiversidad. Kepa Sacristan coincide con Javier Loidi, de hecho, se hizo un inventario de especies de los muros del Puerto Viejo. Sin embargo, hay que hacer pedagogía porque tal y como dice Janire Ocio, dejar sin limpiar los muros se asocia al abandono y luego la ciudadanía llama y critica. Se podrían poner carteles para poner en valor estos muros.

Txakurrentzako aisialdi-guneetako 3.3.5 ekintzari dagokionez, txakur-errolda egin dela eta guneak txakur-kontzentrazioen arabera egokituko direla adierazi da. Amaia Lauzirikak azaldu duenez, txakurra duten pertsonak gutxi gorabehera beti leku berberetatik joaten dira. Gaur egun, leku batzuetan txakurra aske eraman daiteke, baina ordutegi jakin batean. Orain, eremuak eta ordutegiak zabaldu egin nahi dira. Itxi litezke, baina arazoak sor ditzake; horregatik ari dira aztertzen. Gai horri dagokionez, Amaia Lauzirikak proposatu du kanpaina egitea, poltsatxoak ematea edo txakurren gorozkiak jasotzen ez dituzten pertsonentzako berariazko seinaletika jartzea. Hain zuzen ere, Kepa Sacristanek esan du pertsona batzuek ez dituztela gorozkiak jasotzen, bereziki berdeguneetan; eta horrek arazoak eta gaixotasunak (kiste idiopatikoa) eragin ditzakeela berdeguneak mozteaz eta mantentzeaz arduratzen diren pertsonen artean. Getxon egon dira kasuak. Zoritxarrez, zaila da biltzen ez duen jendea hori egiten hastea, isunak tartean daudenean izan ezik.

Con relación a la acción 3.3.5 de las zonas de esparcimiento para perros, se comenta que se ha hecho un censo canino y que las zonas se habilitarán en función de las concentraciones de perros. Amaia Lauzirika explica que las personas con perro más o menos van siempre por los mismos sitios. En la actualidad en algunas zonas se puede llevar al perro suelto pero en horario determinado. Ahora se trata de ampliar las zonas y los horarios. Se podría cerrar pero podría dar problemas, por eso se está estudiando. Con relación a este tema, Amaia Lauzirika propone hacer campaña, dar bolsitas o poner señalética específica para las personas que no recogen las heces de los perros. Efectivamente, Kepa Sacristan comenta que hay personas que no recogen las heces, especialmente en las zonas verdes, lo cual puede derivar en problemas y enfermedades (quiste idiopático) entre las personas encargadas de la siega y mantenimiento de las zonas verdes. En Getxo ha habido casos. Desgraciadamente es difícil que la gente que no recoge comience a hacerlo, salvo si hay multas de por medio.

Kepa Sacristanek bidegorrien 3.4.1 ekintzan gehitu du Kale Nagusiko tarte bat laster lizitatuko dela.

Kepa Sacristan añade en la Acción 3.4.1 de bidegorris que un tramo de la calle Mayor se va a licitar próximamente.

Trafikoa hobetzeko 3.4.4 ekintzari dagokionez, Iñigo Azkaratek radarrei buruz galdetu du: ea noiz hasiko diren funtzionatzen. Teknikariek ez dakite. Kabinak hor daude eta dena dago prest; poliziak martxan jartzea da kontua.

Con relación a la acción 3.4.4 de mejora del tráfico, Iñigo Azkarate pregunta por los radares, a ver cuándo van a comenzar a funcionar. Los técnicos lo desconocen. Las cabinas ya están y todo está preparado, es cuestión de que la policía lo ponga en marcha.

Iñigo Azkarateren interesa ikusita, Josu Atekak eskola-bideen 3.4.5 ekintzan adierazi du enpresa dagoeneko esleituta dagoela eta ikastetxe guztiekin partaidetza-prozesu bat egingo dela ikastetxe guztientzako bide bakar bat prestatzeko. Iñigo Martinezek pozik hartu du berria.

Visto el interés de Iñigo Azkarate, Josu Ateka comenta en la Acción 3.4.5 de caminos escolares que la empresa ya está adjudicada y que se va a hacer un proceso participativo con todos los centros escolares para habilitar un único camino para todos los centros. Iñigo Martínez recibe la noticia con alegría.

3.5.1 ekintzari dagokionez (Hiri-berrurbanizazioa, oinezkoei lehentasuna emateko), eremu gehiago egokituko dituzte oinezkoentzat/erdipeatonalizatuko dituzte: Algortako

Con relación a la acción 3.5.1. Reurbanización urbana para dar prioridad al peatón, se va a proceder a peatonalizar/

erdialdea, Areeta, Andres Cortina, Aurrezki Kutxa, Kale Nagusia... Iñigo Azkaratek Euskal Herria kaleaz galdetu du. Kepa Sacristanek erantzun du oraingoz ezetz, emisioen araberakoa izango dela, 2023ko amaieran indarrean dagoen legera egokitu behar delako.

Azkenik, Kepa Sacristanek 3.5.2 ekintzari (Administrazio eta merkataritza zentroetarako eta hondartzetarako konexio irisgarriak) buruzko zenbait zehaztapen egin ditu. Arene-Arenazpiko bosgarren igogailuarekin kirol-hiria goraino lotzen da. Dena espaloi bereziki zabalekin, argiztapen-maila handiagoarekin eta, ondorioz, mugikortasuna hobetuz.

**4.- Galderak eta eskaerak.**

Txaro Arceniegak bere inguruaren eskaera bat helarazi du: mesedez, Euskal Herriako trenbideekiko paraleloan dagoen pasealekuan bankuak jartzeko. Dirudienez, adinekoek horien falta sentitzen dute. Kepa Sacristanek oharra jaso du eta hasiera batean jarri egingo dira.
Javier Loidik galdetu du ea Led-ak jartzen ari diren udalerriko farola guztietan. 5. ildo estrategikoko ekintza bat da. Datorren egunean ikusiko dugu; baina, bai, urtero aldatzen dira. Gutxiago geratzen ari dira; baina etengabeko ekintza da, beti hobetu baitaiteke eraginkortasuna.

Gaur berrikusteko astirik eman ez duten 4. eta 5. ildoetako ekintzak Foroak apirilean egingo duen hurrengo bileran berrikusiko dira.

21:00etan, bilera amaitutzat jo da.

semipeatonalizar más zonas: centro de Algorta, Areeta, Andres Cortina, Caja de Ahorros, calle Mayor… Iñigo Azakarate pregunta por la calle Euskal Herria. Kepa Sacristan responde que de momento no, dependerá de las emisiones porque hay que ajustarse a la ley vigente a finales de 2023.

Finalmente, Kepa Sacristan hace algunas puntualizaciones con relación a la acción 3.5.2. Conexiones accesibles a centros administrativos, comerciales y playas. Con el quinto ascensor de Arene- Areneazpi se conecta la ciudad deportiva hasta arriba. Todo con aceras especialmente anchas, mayor nivel de iluminación, y consiguiente mejora de la movilidad.

**4.- Ruegos y preguntas.**

Txaro Arceniega traslada una petición de su entorno de por favor instalar bancos en el paseo paralelo a las vías en Euskal Herria. Al parecer las personas mayores los echan de menos. Kepa Sacristan toma nota y en principio se instalarán.

Javier Loidi pregunta a ver si se están sustituyendo a Led todas las farolas del municipio. Es una acción de la línea estratégica 5 que veremos el próximo día, pero sí, cada año se van sustituyendo. Ya van quedando menos, pero es una acción continua ya que siempre se puede mejorar la eficiencia.

Las acciones de las líneas 4 y 5 que hoy no ha dado tiempo a revisar, se repasarán en la próxima reunión del Foro en el mes de abril.

A las 21:00 horas se da por finalizada la reunión.